

2015eko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA ETA AUDITORETZA
2016ko UZTAILA



AURKIBIDEA		OR.
1	SARRERA.....	1
2	KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA.....	2
3	KONTRATUEN ERREGISTROA.....	5
4	2015EKO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA.....	6
4.1.-	GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2015EAN ONARTUAK	8
4.1.1.-	TIPOLOGIAREN ARABERA.....	8
4.1.2.-	TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA	8
4.1.3.-	PROZEDURAREN ARABERA.....	15
4.1.4.-	ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA	18
4.2.-	GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2015EAN GAUZATUAK	19
4.2.1.-	TIPOLOGIAREN ARABERA.....	20
4.2.2.-	TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA	20
4.2.3.-	ESLEITU GABE GERATUTAKO LIZITAZIOAK.....	21
4.2.4.-	ATZERA EGINDAKOAK	22
4.2.5.-	ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA.....	23
4.2.6.-	ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA	24
4.2.7.-	ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK.....	42
4.3.-	2015EKO EKITALDIAN ONARTUTAKO ESPARRU-AKORDIOAK.....	42
4.4.-	GASTUAREN KUDEAKETARI LOTU GABEKO ONDARE KONTRATUAK.....	43
4.4.1.-	ONDARE KONTRATUAK	43
4.4.2.-	BASO APROBETXAMENDUAK	45
ERANSKINAK		
I. ERANSKINA	2015ean onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera	46
II. ERANSKINA	2015ean onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera	47
III. ERANSKINA	2015ean onartutako kontratuak, espedientearen tramitearen arabera	48
IV. ERANSKINA	2015eko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera.....	49
V. ERANSKINA	2015eko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera.....	72



1 SARRERA

Maiatzaren 22ko 25/2012 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, Foru Aldundiak egiten dituen kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio Kontu-hartzailera eta Auditoretza Zerbitzuari. Orobat, eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere agintzen zaio zerbitzuari dekretu horretan.

Hori guztia betez, memoria hau aurkezten da Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean egindako kudeaketaren ikuspegi integral bat eskaintzeko.

Memoriak bi atal nagusi ditu:

1. Kontratazio alorrean Foru Aldundiari aplikagarri zaion araudiaren aipamen laburra.
2. Foru Aldundiaren 2015eko kontratuen kudeaketari buruz Zerbitzu honetan dauden datuen azterketa. Ekitaldian lizitatu eta esleitutako kontratuen inguruko datu eta estatistikak ere jasotzen dira, eta konparazioak egiten dira aurreko urtearekiko.



2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

◆ Kontratazio administratiboaren alorrean aplikagarria den legeria

2015eko ekitaldian honako legeria izan du aplikagarria Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean:

- 1.- Aurrenik, Estatuko Oinarrizko Legeria (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko legeria dira:
 - ⇒ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
 - ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
 - ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 2.- Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
 - ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzekoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko Kontseilariarena, Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzekoa.
- 3.- Azkenik, ordezeko izaeraz, zuzenbide pribatua ere da aplikagarria.



◆ **Kontratazio administratiboan aplikagarria den foru araudia**

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboaren alorrean, salbu eta bere Administrazioako organoen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatutuak 37. artikuluan aitortuta duen auto-antolaketa eskumenaren barruan sartzen diren gaitan. Atal honetan xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, kontratazio eta erosketa zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraituz.
- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeko dena.
- ⇒ 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen egitura organiko eta funtzionala onartzen dituzten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzen duena.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko apirilaren 24koa, kontratazio administratiboan alorrean Foru Aldundiko lan eta zerbitzuetan edo berak sustatutakoetan segurtasun eta osasun gaiari buruz bete beharreko arauak onartzen dituena (2001-05-29ko GAO).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko ekainaren 12koa, II. kapituluko hainbat partida kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituena.



- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru-laguntzetan sartzea onartzen duena.

- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2013ko martxoaren 13koa, kontratuen eta prestazio hitzarmenen alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikatuko dituen neurrien jarraibidea onartzen duena abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoa betetzeko.



3 KONTRATUEN ERREGISTROA

Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen administrazio kontratu guztiak erregistratzen dira Kontu-hartzailera eta Auditoretza Zerbitzuak kudeatzen duen erregistroan, kanpoan utzita indarrean dagoen legeriaren arabera kontratu txikitat hartzen direnak.



4 2015EKO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko, irizpide hauei jarraitu zaie:

1. Barruan sartu dira Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginari lotuta 2015eko ekitaldian prozedura irekia edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz lizitatu diren administrazio-kontratu guztiak (ekitaldi honetan tramitatutako prozedura bakarrak), bai eta kontratu pribatuak ere. Esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak prozedura negoziatuen barruan sartu dira.
2. 2015. urtean onartutako kontratuaren datuak kontratazio espedientea urte horretan baimendua duten prozesuei dagozkie.
3. Barruan sartu dira ondare-kontratuak (ondasun higiezinak salerosteko kontratuak, kasu), sarreraren kudeaketarekin lotutako kontratuak, baso-ustiapenen lizitazioak eta GFAREN ondare-ondasunen doako eta kostu bidezko lagapenak.
4. Esleipenei buruzko datuetan 2015. urtean egindako esleipenak sartu dira, kontratua ekitaldi horretan edo aurrekoetan onartu den kontuan hartu gabe.
5. Esleipen kopurua lotei buruzkoa da, ez kontratuei buruzkoa. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela. Kontuan izanik lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomoa izan dezakeela kontratuaren gainerako loteen aldean, zerrendak eta estatistikak prestatzerakoan lote kontzeptuarekin egin behar da lana, eta ez, ordea, kontratu kontzeptuarekin.
6. Memorian jasotzen diren zenbateko guztiak, bai onartutako kontratuarenak eta bai esleitutako loteenak, BEZarekin datoz beti, eta kontratu nagusiaren aurrekontuari dagozkio, egon litezkeen luzapenak aintzat hartu gabe. Hala ere, jaso gabe utzi dira prezio unitarioen arabera onartutako kontratuaren zenbatekoak, departamentuek zenbateko osoei buruzko daturik eman ez dutelako.
7. Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaiak kudeatutako esparru-akordioak (kudeaketa zentralizatuko gastuei buruzko kontratuak) eta Kontratazioaren Zentralak kudeatutakoak bereizita eta zenbateko osoaren arabera banatuta aurkezten dira. Zentralak tramitatutako esparru-akordioak Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek formalizatu beharreko kontratazio espedienteak izan daitezke. Baimendu eta esleitutako kontratuaren artean esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak ere sartu dira.
8. Prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak departamentu kudeatzaileek emandako informazioari jarraituz sartu dira memorian, haien zenbatekoa kontuan hartu gabe.
9. Aurreko ekitaldietan bezala, kontratu txikien prozeduraz tramitatutako kontratuak ez dira sartu memoria honetan.



2015eko ekitaldian 163 kontratazio espediente onartu dira, 277.202.775,59 euro guztira. Ondorengo ataletan, espediente horien banaketa aztertzen dugu hainbat irizpideren arabera.



4.1.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2015EAN ONARTUAK

4.1.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak arautzen dituen kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2015ean onartutako kontratuek banaketa hau ageri dute:

KONTRATU MOTA	Kop.	%	Zenbatekoa	%
Obrak	37	22,70	16.206.429,54	5,85
Hornidurak	28	17,18	4.422.575,50	1,60
Zerbitzuak	92	56,44	21.112.275,73	7,62
Zerbitzuen kudeaketa	4	2,45	235.108.894,82	84,81
Administratibo bereziak	1	0,61	280.000,00	0,10
Pribatuak	1	0,61	72.600,00	0,03
GUZTIRA	163	100	277.202.775,59	100

Kontratu kopuruari begiratuta, zerbitzuen kontratuak nagusitzen dira, alde handiz, besteen gainean, 2015an lizitatutako guztien %56,44 hartzen baitute. Ondoren, obra kontratuak datoz, kopuru osoaren %22,70eko portzentajearekin. Hirugarren tokian hornidura kontratuak ageri dira, haien portzentajea kopuru osoaren %17,18 baita.

Hiru kontratu motak batuta, Foru Aldundiak 2015ean onartutako kontratu guztien %96,32 hartzen dute. Gainerakoak honela banatzen dira: zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak (%2,45), administratibo bereziak (%0,61), eta pribatuak (%0,61).

Ikuspuntu ekonomikotik, zerbitzuak kudeatzeko kontratuak dira bereziki garrantzitsuak (%84,81), eta haien barruan bidaiarien garraio zerbitzua zonaka egiteko lau emakidak nabarmentzen dira. Azken horiek 2015eko ekitaldian hasi ziren tramitatzen, eta haien zenbatekoa 235.108.894,82 euro da guztira (kontratu guztiak hartuta, zenbateko osoa 277.202.775,59 euro da). Ondoren, zerbitzu kontratuak datoz (zenbateko osoaren %7,62).

4.1.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA


Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da Bide Azpiegituretako Departamentuak besteek baino kontratu gehiago tramitatu dituela (kopuru osoaren %19,02). Atzetik bi hauek datoz: Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua (%12,88) eta Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua (%12,27). Gainerako departamentuak ez dira %10era iristen.

Gastu baimenduari dagokionez, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua nabarmendu behar dugu, haren gastu bolumena, barruan bidaiarien garraio zerbitzuko zonakako emakidak hartzen dituena, 2015eko gastu osoaren %80,39 baita. Atzetik, baina distantzia handiz, Gizarte Politikako Departamentua dago, %6,79ko portzentajearekin.


2015EAN ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA

	Kop,	%	ZENBATEKOA	%
Diputatu Nagusia	9	5,52	693.275,55	0,25
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola	21	12,88	2.832.426,60	1,02
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	12	7,36	10.098.311,30	3,64
Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	16	9,82	1.698.529,90	0,61
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	16	9,82	222.848.589,61	80,39
Ogasuna eta Finantzak	8	4,91	983.439,30	0,35
Bide Azpiegiturak	31	19,02	11.417.242,96	4,12
Gizarte Politika	14	8,59	18.823.934,25	6,79
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	20	12,27	6.719.897,36	2,42
Kudeaketa Zentralizatu eta Kontratazioen Zentrala	16	9,82	1.087.128,76	0,39
GUZTIRA	163	100	277.202.775,59	100

ONARTUTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA



BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian, departamentuz departamentu xehatuko dugu informazioa.

Diputatu Nagusia

2015eko ekitaldian 9 kontratazio espediente onartu dira (693.275,55 euro guztira), hau da, ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,25.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Zerbitzuak	9	100	693.275,55	100

Departamentu honek zerbitzu kontratuak erabili ditu soilik. Bi zerbitzu kontratu nabarmentzen dira 2015eko ekitaldian, Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak hasitakoak biak, bakoitza 133.100 euroko prezioan lizitatu. Zuzendari Nagusiari laguntza eta babes teknikoa ematea zuten xede bi kontratuek, kasu batean berdintasun politikak foru aldundian bultzatu eta indartzeko, eta beste kasuan politika horiek toki entitateetan bultzatzeko; azken kontratu horren tramitazioa bi aldiz hasi behar izan zen, lehendabiziko lizitazioa hutsik deklaratu zelako.

Ogasuna eta Finantzak

2015eko ekitaldian 8 kontratazio espediente onartu dira (983.439,30 euro guztira), ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,35.

Kontratuak	Kop.	%	Zenbatekoa	%
Zerbitzuak	8	100	983.439,30	100



Departamentu honek zerbitzu kontratuak baino ez ditu erabili, eta haien artean bereziki aipatzekoa da, duen zenbatekoarengatik, informatika atalean tratamendu dokumentala egiteko zerbitzuen kontratazioa (620.040,30 euro guztira).

Gizarte Politika

Departamentu honek 14 kontratu onartu ditu 2015eko ekitaldian, eta 18.823.934,25 euroko aurrekontua lizitatu du guztira. Gastu hori, ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu osoaren %6,79 da.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	3	21,43	463.236,63	2,46
Hornidurak	2	14,29	369.155,30	1,96
Zerbitzuak	7	50,00	4.316.573,43	22,93
Zerbitzuen kudeaketa	2	14,29	13.674.968,89	72,65
	14	100	18.823.934,25	100

Departamentu honek 2015ean tramitatutako kontratuak nabarmen jaitsi dira, zenbatekoari dagokionez, aurreko urtean tramitatutakoen aldean. Izan ere, 2014. urtean hasitako 17 kontratuek 34.199.266,88 euroko zenbatekoa egiten zuten guztira. 2015ean, lau kontratuk gainditu dute milioi bat euroko atalasea, eta hauek dira garrantzitsuenak:

- ❑ babesik gabeko adingabeak Donostia (Uba), Hernani (Zikuñaga), Aia (Iturriotz Azpi) eta Irungo (Azpilikueta) egoitzetan hartzeko zentroen erabilera eta kudeaketaren emakida → 11.181.159,33 euro.
- ❑ indarkeria matxistaren biktimentzako harrera eta laguntza zentroen erabilera eta kudeaketaren emakida → 2.493.809,56 euro.
- ❑ babesik gabeko adingabeak egoitzetan hartzeko laguntza teknikoa → 2.141.594,73 euro.

Aurrezkiez gain, departamentu honek, urtero, izaera kontraktualeko hitzarmen eta itun prestazionalak izenpetzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari lotuta, eta haien artean nabarmentzekoak dira, beren zenbatekoarengatik, pertsona desgaituen eta hirugarren adinekoen egoitzak kudeatzekoak (haien datuak ez dira jasotzen memoria honetan).

Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola

Departamentu honek 21 kontratu onartu zituen iaz, honela banatuta:



KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	1	4,76	237.217,37	8,38
Zerbitzuak	19	90,48	2.522.609,23	89,06
Pribatuak	1	4,76	72.600,00	2,56
	21	100	2.832.426,60	100

Eman dizkiguten datuen arabera, departamentu honek tramitatu dituen kontratu gehienak zerbitzu kontratuak dira, eta kontratu modalitate horretan baimendutako gastu bolumena zenbateko osoaren %89,06 inguru da.

Kontratu horietan guztietan, zenbatekorik handienekoa Kultura Zuzendaritza Nagusiari adskribatuta dauden hainbat eraikin mantentzeko zerbitzuena da. Bost kontratuk 100.000 euroko atalasea gainditzen dute, eta, horietatik lauk 200.000 eurokoa.

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

Departamentu honek 12 kontratazio espediente onartu ditu 2015ean, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Hornidurak	3	25,00	900.800,00	8,92
Zerbitzuak	8	66,67	8.917.511,30	88,31
Administratibo berezia	1	8,33	280.000,00	2,77
	12	100	10.098.311,30	100

Baimendutako gastuaren zenbatekoari erreparatuz gero, hiru kontratu nabarmentzen dira: posta zerbitzuaren kontratazioa Gipuzkoako Kontratazio-Zentralaren bitartez (8.072.204,03 euro), bi kamioi autoponparen hornidura (640.000 euro), eta Foru Aldundiaren ordezkari prozesala egiteko zerbitzuak (319.440 euro). Beste hiru kontratuk bakarrik gainditzen dute 100.000 euroko atalasea.

Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka

Departamentu honek 16 espediente onartu ditu 2015ean urtean zehar, eta 1.698.529,90 euroko aurrekontua lizitatu du. Zerbitzuen kontratua da gehien erabili dena: 12 espediente. Orobat, kontratu kategoria honetan baimendu den zenbatekoa departamentuak baimendutako gastu osoaren %37,89 da.



KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	1	6,25	529.561,92	31,18
Hornidurak	3	18,75	525.326,00	30,93
Zerbitzuak	12	75,00	643.641,98	37,89
	16	100	1.698.529,90	100

2015eko ekitaldian departamentu honek onartu duen gastu bolumen handiena obra kontratu honi dagokio: Urrulloko parke agroekologikoko (Lezo) nekazaritzaldean elikagaien eraldatze gunea eraikitze proiektuaren obrak → 529.561,92 euro. Ondoren, bi hornidura kontratu hauek datoz: akoplamendu induktiboaren bidezko masa detektagailua (ICP-MS) duen plasma-espektrometroa hornitzea, (270.000 euro), eta likidoak manipulatzeko robota hornitzea (230.400 euro).

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa

Departamentu honek 16 kontratazio espediente onartu ditu 2015ean, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	1	6,25	398.871,71	0,18
Hornidurak	2	12,50	101.398,00	0,05
Zerbitzuak	11	68,75	914.393,97	0,41
Zerbitzuen kudeaketa	2	12,50	221.433.925,93	99,37
	16	100	222.848.589,61	100

Zerbitzuak kudeatzeko bi kontratu lizitatuak (baina esleitu gabeak) Tolosan, N-1 errepidean, Buruntzaldean eta Donostiarekiko konexioetan bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularra egiteko emakida berberari dagozkio. Lehenengo kasuan (110.294.180,13 euro) atzera egin zen lizitazioan, eta bigarrenean (111.139.745,80 euro) bertan behar utzi zen. Alor honetako gainerako kontratuei dagokienez, 2015eko ekitaldian hasitakoen artean nabarmendu daitekeen hurrengo kontratua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregia eta Peñaforida kaleko eraikina mantentzeko kontratua da → 484.000 euro. Hasitakoen artean, beste bi kontratuk baino ez dute gaintzen 100.000 euroko atalasea.

Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 31 kontratu onartu zituen aurreko ekitaldian, honela banatuak:



KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	20	64,52	8.407.618,26	73,64
Hornidurak	1	3,23	1.407.307,44	12,33
Zerbitzuak	10	32,26	1.602.617,26	14,03
	31	100	11.417.242,96	100

Kontratu moten arabera aztertuta, beren zenbatekoagatik obra kontratuak dira nagusi, departamentu honek lizitatutako zenbateko osoaren %73,64 metatzen baitute. Hasitako en artean, zenbatekorik handieneko kontratua GI-632 saihebidetaren Antzuola-Bergara tartean ezpona egonkortzeko proiektuari dagokio (3.280.481,01 euro), eta bigarren tokian, alde batera utzita departamentu honi egotzitako hornidura kontratu bakarra, G-120 saihebidetara Karlos I. arekiko konexioan hiribide bihurtzeko proiektua dago (812.283,22 euro). Gainerako kontratuetan, 17k gaitzen dute 100.000 euroko zenbatekoa.

Ingurumena eta Obra Hidraulikoak

Guztira, 20 kontratu onartu ditu departamentu honek 2015ean, 6.719.897,36 euro orotara.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	11	55,00	6.169.923,65	91,82
Hornidurak	1	5,00	31.460,00	0,47
Zerbitzuak	8	40,00	518.513,71	7,72
	20	100	6.719.897,36	100

Departamentu honetan hasitako kontratuen artean obra kontratuak nabarmentzen dira. Zehazki, bi hauek: Aiako saneamenduetan Andatza-Santiago tartea egiteko proiektu eguneratua, 2. fasea (2.543.236,67 euro), eta Arama eta Altzagako saneamenduetan proiektu eguneratua (1.530.331,26 euro). Horrez gain, beste 8 kontratu tramitatu dira 2015ean, obra kontratuak denak, 100.000 eurotik gora.

Kudeaketa zentralizatua

Tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuak egiten ditu, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak araututako Zerbitzu Orokorretako Kontratazio eta Homologazio Mahaiaren bitartez.

Kontratu hauek tramitatu dira Zerbitzu Orokorretako Kontratazio-Mahaiaren bitartez:



KONTRATUAK	Kop.	ZENBATEKOA
Hornidurak	14	920.742,87

Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez kontratu mota bakarra tramitatu da 2015ean, hornidura kontratua.

Kontratuen zenbatekoari erreparatuta, hauek nabarmentzen dira:

- 4x4 kamioi baten hornidura Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuarentzat → 173.500 euro.
- Foru Aldundiko zentroetarako solteko propanoaren hornidura → 135.036 euro.

Foru Kontratazioen Zentrala

Foru Kontratazioen Zentralak irekitako espedienteak kudeatu eta kontratatzeko, esparru-akordioa erabiltzen da, Zentrala erregulitzen duen araudiak exijitzen duen bezala (otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretua, 6.1 artikulua). Espediente bakoitzari atxikitako enteari dagokio beti kontratazio alorreko araudiaren arabera zilegi diren kontratuak esleitu eta formalizatzea.

Memoria honen ondorioetarako, kontratu eratorri hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion gastu baimendua bakarrik sartu da.

Foru Kontratazioen Zentralak kontratu hauek tramitatu ditu:

KONTRATUAK	Kop.	ZENBATEKOA
Hornidurak	2	166.385,89

4.1.3.- PROZEDURAREN ARABERA

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak eskema hau ezarri zuen administrazio kontratuak esleitzeko prozedurei dagokienez:

IREKIA
MURRIZTUA
NEGOZIATUA: <ul style="list-style-type: none"> ○ publizitatearekin ○ publizitaterik gabe

Lehia-elkarrizketan, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo



irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek eskaintza bat aurkez dezaten. Esan behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiko ezein espedientetan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

2015. urtean, Foru Aldundiak bi prozedura erabili ditu kontratuen esleipena tramitatzeko¹. Ondoko taulan ikusgai jartzen dugu nola banatzen diren onartutako kontratuak esleipen prozeduraren arabera:

DEPARTAMENTUA	IREKIA			NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE		
	KONT. KOP.	ZENBATEKOA		KONT. KOP.	ZENBATEKOA	
		%	€			%
Diputatu Nagusia	3	57,60	399.300,00	6	42,40	293.975,55
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	5	66,68	1.888.598,28	16	33,32	943.828,32
Gobernantza eta Gizartear. Komunikazioa	7	18,15	1.832.445,27	5	81,85	8.265.866,03
Eko. Sust., Land Ingur. eta Lurralde Oreka	3	60,64	1.029.961,92	13	39,36	668.567,98
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	7	99,86	222.528.147,22	9	0,14	320.442,39
Ogasuna eta Finantzak	3	73,93	727.040,30	5	26,07	256.399,00
Bide Azpiegiturak	6	61,32	7.001.415,35	25	38,68	4.415.827,61
Gizarte Politika	8	96,08	18.085.721,23	6	3,92	738.213,02
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	6	76,60	5.147.623,22	14	23,40	1.572.274,14
Kudeaketa zentraliztua	2	33,51	308.536,00	12	66,49	612.206,87
Kontratazioen Zentrala. Eratorriak				2	100	166.385,89
GUZTIRA	50	93,41	258.948.788,79	113	6,59	18.253.986,80

Goiko taulan jasotako datuei erreparatzen badiegu, alde batetik ikusten da prozedura irekia erabiliz 50 kontratu lizitatu direla, kontratu kopuru osoaren %30,67 eta baimendutako gastu osoaren %93,41.

Bestetik, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz 113 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren %69,33 baina lizitatutako zenbateko osoaren %6,59 baino ez.

Zifra horiek erakusten dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatua dela lizitazioetan gehien erabilitakoa, nahiz eta haien kopurua txikiago izan aurreko ekitaldiaren aldean (120 aurreko urtean). Zenbateko osoak, ordea, gora egin du zerbait: 17,68 milioi eurotik 18,25 milioi eurora.

¹ Ikus memoria honen II. eranskinean, 2015ean onartutako kontratuen xehetasuna, esleipen prozeduraren arabera.



Datu horien arabera, kontratuak esleitzeko garaian, bi departamentuk bakarrik erabili dute gehiagotan prozedura irekia publizitaterik gabeko prozedura negoziatua irekia baino (Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa, eta Gizarte Politika).

Departamentu guztiek batik bat zenbatekoa argudiatu dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatua justifikatzeko.

DEPARTAMENTUA	NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE Emandako argudioak		
	Kopurua	Beste arrazoi batzuk	Guztira
Diputatu Nagusia	6	0	6
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	16	0	16
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	5	0	5
Eko. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	11	2	13
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	9	0	9
Ogasuna eta Finantzak	3	2	5
Bide Azpiegiturak	24	1	25
Gizarte Politika	3	3	6
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	14	0	14
Kudeaketa zentralizatua	10	2	12
Kontratazioen Zentrala	0	2	2
GUZTIRA	101	12	113

Bost departamentuk (Diputatu Nagusiaren Kabinetea, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa, Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa, eta Ingurumena eta Obra Hidraulikoak) justifikatu dute kasu guztietan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili dutela kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako muga azpitik zeudelako.

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruko eta Lurralde Oreko Departamentuak hamahiru espedienteetatik hamaikatan justifikazio hori bera erabili du; beste bietan, ordea, adierazi du arrazoi teknikoengatik enpresaburu jakin bati bakarrik eman ahal izan zaizkiola lanak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 170.d art.).

Ogasun eta Finantza Departamentuak zenbatekoa argudiatu du hiru kontratutan prozedura hau erabiltzeko, eta beste bi kasuetan adierazi du arrazoiak izan dela prozedura irekiaren bitartez tramitatu ondoren kontratuak esleitu gabe geratu direla.

Bide Azpiegiturretako Departamentuak hogeita lau kasutan kontratuen zenbatekoagatik justifikatu du prozedura hau, eta kasu batean tramitazioa presazkoa izateagatik.



Gizarte Politikako Departamentuak hiru kasutan argudiatu du kontratuen zenbatekoa prozedura hau justifikatzeko: batean, aurreko kontratu bati lotutako zerbitzu osagarriak izateagatik (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 174.b art.), eta beste bietan aurrez tramitatutako prozedura irekia hutsik geratzeagatik.

Kudeaketa Zentralizatuko gastuen kontratuei dagokienez, haietatik hamarretan zenbatekoa argudiatu da, eta batean adierazi da arrazoi teknikoak izan direla lanen exekuzioa enpresaburu jakin bati emateko (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 170.d art.). Bestea esparru-akordio batetik eratorritako kontratu gisa kudeatu da.

Azkenik, Kontratazioen Zentralak esleitutako bi kontratuak Zentralak berak lehendik esleitutako esparru-akordioetatik eratorriak dira.

4.1.4.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Kontratazio espedienteak arruntak, presakoak zein larrialdikoak izan daitezke.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, espediente gehienak (%98,16) izaera arruntez tramititzen dira, eta aurrekontu lizitatuaren %98,57 hartzen dute.

TRAMITEA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRATU KOP.%	ZENBATEK O OSOA/%
Arrunta	161	273.483.899,75	98,77	98,66
Presakoa	1	3.280.481,01	0,61	1,18
Larrialdikoa	1	438.394,83	0,61	0,16
GUZTIRA	163	277.202.775,59	100	100

Larrialdi prozeduraz espediente bakarra tramitatu da, hain zuzen ere N-I errepidean (411+0,625 k.p.), Gasteiz-Irun noranzkoan, lur-erazketako ezponda egonkortzeko lanei dagokiena.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoaren arabera, tramitazio hau erabiliko da Administrazioak berehala jardun behar duenean hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako.

² Ikus memoriaren III. eranskinean 2015ean onartutako kontratuen xehetasuna, espedientearen tramitazioaren arabera.



4.2.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2015EAN GAUZATUAK

Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2015. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartu dira, alde batera utzita kontratua lehenago onartu den edo ez. Aitzitik, 2015ean onartu bai baina ekitaldi horren amaieran esleitu gabe geratu diren kontratuak kanpoan utzi dira.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratuz, 2015. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituen kopuruarenak izango dira, hau da, esleipen kopurua handiagoa izango da esleitutako kontratuena baino. Lote kontzeptua ez da ageri bakarrik kontratuaren xedea aurrez adierazitako lotetan banatuta dagoenean, esleipendun bat baino gehiago izan dezaketen kontratu guztietan ere ageri da.

Zehazki, 2015. urtean esleitutako 160 kontratuak (haietatik 18 kontratu 2014an onartu ziren) 175 lote dira guztira. Hortaz, 2015. urtean 175 lote esleitu dira, 450.748.149,52 euro orotara.

Ekitaldian esleitutako loteen zenbatekoei erreparatzen badiegu, hiru hauek nabarmendu behar ditugu beren zenbatekoagatik:

- Bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularra Debagoiena eskualdean eta Debabarrena, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekiko loturetan, eta Donostiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiriburuekiko loturetan egiteko emakida → 225.233.384,00 euro.
- Urola Erdian bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularra egiteko emakida → 46.840.430,00 euro.
- Debabarrena/Urola Kosta eskualdeetan bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularra egiteko emakida → 98.225.314,50 euro.



4.2.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak arautzen dituen kontratu motei begirata, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015ean esleitutako kontratuak honela banatzen dira:

KONTRATU MOTA	Kop.	%	LIZITAZIO ZENBATEKOA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	%
Obrak	35	20,00	16.075.093,99	11.517.018,68	2,56
Hornidurak	29	16,57	3.999.552,54	3.516.573,51	0,78
Zerbitzuak	101	57,71	32.160.171,43	30.198.435,75	6,70
Zerbitzuen kudeaketa	7	4,00	426.172.339,98	405.060.918,65	89,86
Administratibo bereziak	1	0,57	280.000	253.333,32	0,06
Pribatuak	2	1,14	234.600	201.869,61	0,04
GUZTIRA	175	100	478.921.757,94	450.748.149,52	100

Ikuspegi ekonomikotik, zerbitzu kontratuak dira nagusiak, 2015ean lizitatutako aurrekontu osoaren 89,86 hartzen dutelako. Haien atzetik, zerbitzu kontratuak datoz, %6,70eko portzentajearekin. Hirugarren tokian obra kontratuak daude, %2,56ko portzentajearekin.

Hiru kontratu mota horien zenbatekoak batuz gero, Aldundiak 2015ean kontratatutako zenbateko osoaren %99,12 dira.

4.2.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Esleitutako loteei buruzko datuek agerian jartzen dute 2015ean Bide Azpiegituretako Departamentuak esleitu duela lote kopururik handiena, kopuru osoaren %16. Haren atzetik hiru hauek datoz: Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua (%14,29), Ingurumena eta Obra Hidraulikoak (%11,43), eta Gizarte Politika (10,29). Gainerako departamentuak ez dira %10era iristen.

Gastu xedatuari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da besteen gainetik, haren gastu bolumenak 2015eko gastu osoaren %87,82 hartzen baitu, errepide bidezko garraio publikoaren zonakako emakiden esleipenak ekitaldi honetan duen eraginagatik. Atzetik, Gizarte Politikako Departamentua dago, %5,58ko portzentajearekin. Gainerako departamentuen kasuan, batek ere ez du gainditzen %5.



DEPARTAMENTUA	Kop.	Kop. os/%	Esleipen zenbatekoa	Kop. os/%
Diputatu Nagusia	8	4,57	1.006.760,01	0,22
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	25	14,29	2.545.672,33	0,56
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	13	7,43	9.938.406,97	2,20
Eko. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	14	8,00	1.064.524,11	0,24
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	16	9,14	395.825.609,55	87,82
Ogasuna eta Finantzak	16	9,14	1.673.549,54	0,37
Bide Azpiegiturak	28	16,00	7.592.471,63	1,68
Gizarte politika	18	10,29	25.150.274,50	5,58
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	20	11,43	4.901.099,06	1,09
Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio- Zentrala	17	9,71	1.049.781,82	0,23
GUZTIRA	175	100	450.748.149,52	100

4.2.3.- ESLEITU GABE GERATUTAKO LIZITAZIOAK

Atal honetan aipatuko dugu zer lizitazio geratu diren, hainbat arrazoiren ondorioz, esleitu gabe 2015ean.

Erregistratutako datuen azterketatik ondorioztatzen da guztira 11 lote geratu direla hutsik, honako hauek:

KONTRATUA	ZENBATEKOA
<i>Arrazoiak</i>	
Berdintasun Zuzendaritzari laguntza teknikoa ematea Gipuzkoako toki entitateetan berdintasun politikak bultzatu eta indartzeko	133.100,00
<i>Aurkeztutako eskaintza bakarra baztertu egin zen.</i>	
Foru Aldundiaren partaidetzazko aurrekontuetan herritarren partaidetza garatzeko laguntza teknikoa (lehen lizitazioa). 1., 5.,7. eta 8. loteak	32.000,00
<i>Ez zen eskaintzarik aurkeztu lote hauetarako</i>	
Foru Aldundiaren partaidetzazko aurrekontuetan herritarren partaidetza garatzeko laguntza teknikoa (lehen lizitazioa). 6. lotea - Oarsoaldea	7.500,00
<i>Aurkeztutako eskaintza bakarra baztertu egin zen.</i>	
Foru Aldundiaren partaidetzazko aurrekontuetan herritarren partaidetza garatzeko laguntza teknikoa (bigarren lizitazioa). 7. lotea -Tolosaldea	8.500,00
<i>Ez zen eskaintzarik aurkeztu lote hauetarako</i>	



Pasaiako PROISA izeneko kultur ekipamendua definitzeko partaidetza prozesuari heltzeko zerbitzua	35.000
<i>Atzera egindakoa, xedea desagertzeagatik. Lizitatzailerek uko egin zuten.</i>	
Txara I eraikineko estalkiak eta argi-zuloak konpontzeko lanak	152.065,92
<i>Aurkeztutako eskaintzak baztertu egin ziren.</i>	
Ataungo herri onurako mendien antolaketa proiektuaren idazketa	37.846,00
<i>Ez zen aurkeztu eskaintzarik.</i>	
Takografo digitaleko txartelak eta errepide bidezko garraiorako gaitasun profesionalaren ziurtagiriak eta txartelak kudeatzeko laguntza zerbitzua	55.114,29
<i>Aurkeztutako eskaintza bakarra baztertu egin zen.</i>	
GUZTIRA	1.087.128,76

4.2.4.- ATZERA EGINDAKOAK

Bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakida Tolosa, N-I errepidea, Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak hartzen dituen tartean (2014an hasitakoa)	110.294.180,13
<i>Kontratua prestatzeko arauak urratu ziren. Akatsa proiektuan</i>	
Bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakida Tolosa, N-I errepidea, Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak hartzen dituen tartean	111.139.745,80
<i>Lizitazioa baliogabetu zen 3/2015 errekurtsio berezia onetsi eta gero.</i>	
Bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakida Tolosa, N-I errepidea, Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak hartzen dituen tartean	111.139.745,80
<i>Errekurtsioak aurkeztu eta gero, GFAK bertan behar utzi zuen lizitazioa.</i>	

4.2.5- ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2015. urtean batekoz beste %5,88ko beherapena izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen esleipenetan, eta horrek 28.143.443,12 euro aurreztea ekarri du. Portzentaje hori honela banatzen da:

DEPARTAMENTUA	BEHERAPE N %	ZENBATEKOA
Diputatu Nagusia	3,78	39.535,54
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	13,24	388.484,28
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	1,31	129.739,03
Eko. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	5,89	66.597,87
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	5,06	21.094.589,35
Ogasuna eta Finantzak	2,64	45.454,76
Bide Azpiegiturak	23,23	2.297.089,96
Gizarte Politika	6,00	1.605.713,67
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	32,77	2.388.804,62
Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio- Zentrala	7,69	87.434,04
GUZTIRA	5,88	28.143.443,12

Aurreko taulan ikus daitekeenez, beherapen portzentajeak tarte hauen artean mugitzen dira: %1,31 Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuan, eta %1,31 Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuan. Azken horren atzetik, Bide Azpiegituretako Departamentua dator, %23,33rekin.

Hala ere, departamentuetako kontratuetan lizitazioaren beherapenak ekarritako aurrezpenari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen dela, haren lizitazioek 21.094.589,35 euroko beherapena izan baitute garraio publikoaren zonakako emakidek ekitaldian duten garrantziagatik.

KONTRATU MOTA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Obrak	28,35	4.558.075,31
Hornidurak	12,08	482.979,03
Zerbitzuak	6,10	1.961.735,68
Zerbitzuen kudeaketa	4,95	21.111.421,33
Administratibo bereziak	9,52	26.666,68
Pribatuak	13,95	32.730,39
GUZTIRA	5,88	28.173.608,42



Portzentualki, obra kontratuak, kontratu pribatuak eta hornidura kontratuak dira, hurrenkera horretan, beherapen portzentajearen batez bestekorik handiena dutenak: %28,35, %13,95 eta %12,08 hurrenez hurren.

Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari begiratzuz gero, ikusten da kudeaketa eta obra kontratuak direla aurrezpen handienekoak. Izan ere, kontratu horietan izandako 25.669.496,64 euroko beherapena Aldundiak 2015eko ekitaldian exekutututako lote guztien beherapenen %91,11 inguru da.

Bestetik, zenbatekoan beherapenik handiena izan duen kontratua Debagoiena eskualdean eta Debabarrena, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekiko loturetan, eta Donostiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiriburuekiko loturetan bidaiarien garraio zerbitzu publikoa egiteko emakidarena da. Kontratu hau 225.233.384,80 eurotan esleitu zen, haren lizitazio prezioa 240.153.794,20 eurokoa izan zenean (14.920.409,40 euroko beherapena → %6,21). Bigarren tokian, Urola Erdia eskualdeko emakida ageri da, zeina 46.840.430 eurotan esleitu baitzen, haren lizitazio aurrekontua 51.985472,88 eurokoa zenean (5.145.042,88 € gutxiago → %9,90). Eta beherapenik handiena izan duen hirugarren kontratua Aiako saneamenduaren Andatza-Santiago tartea egiteko proiektu eguneratua da (2. fasea); azken hau 1.398.743,14 eurotan esleitu zen, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 2.543.236,67 eurokoa zenean (1.144.493,53 € gutxiago → %45,00).

4.2.6.- ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA

Atal honetan aztertzen da zer irizpide ezartzen dituzten departamentuek beren baldintza agiritan kontratuak esleitzeko. Azterketa egiteko, prozedura ireki bidez esleitutako loteak bakarrik hartu dira. Izan ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, Kontratuen Erregistroan ez dago daturik esleipenik izan ez duten gainerako eskaintzei buruz. Kanpoan geratu dira, baita ere, prezio unitarioen arabera esleitutako kontratuak, haien kasuan ere informazio hori ez dugulako.

Esleipena eskaintzarik onuragarrienaren alde egin beharra dago, klausula administratibo partikularren agirian ezarritako balorazio irizpideak behar bezala ponderatu eta aplikatu ondoren. Normalean, departamentuek esleipen irizpide bat baino gehiago hartzen dute kontuan kontratuak esleitzeko, eta, beraz, horrek esan nahi du esleipena ez dela zertan egin eskaintza merkeenaren alde. 2015ean onartutako klausula administratibo partikularren agiriak aztertu ondoren, saiatu gara zerrenda batean jasotzen antzekoak izan daitezkeen esleipen irizpideak, eta honela laburtu ditzakegu:

- ◆ proposamen ekonomikoa
- ◆ produktuaren ezaugarri teknikoak/funtzionalak/estetikoak
- ◆ berriazko esperientzia, edo antzekoa
- ◆ berme epea
- ◆ saldu osteko zerbitzua, enpresak egitekoa
- ◆ proposamena/proiektua/memoria teknikoa/metodologia



- ◆ giza baliabideak eta bitarteko materialak
- ◆ prestasuna, gaitasun teknikoa
- ◆ hobekuntzak
- ◆ afekzioen murrizketa
- ◆ epea
- ◆ espero den zerbitzuaren kalitatea, emateko epea, bermea
- ◆ programa, memoria teknikoa, epeak
- ◆ proiektuaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa
- ◆ genero berdintasuna, ingurumenaren babesa, euskararen erabilera
- ◆ bestelako irizpideak

Datuak aztertuta, eta irizpide bakoitzaren pisu portzentuala ponderatu ondoren, prezioaren irizpideak jarraitzen du izaten pisu portzentual nagusia esleipen bakoitzerako aplikatutako irizpideen ponderazioan aintzat hartu beharreko puntu guztiekiko.

Horrela, datuak bateratzen baditugu eta prezioaren irizpideak puntu guztiekiko hartzen duen portzentajea ponderatzen badugu, zerrenda hau lortzen dugu departamentuka:

- Ingurumena eta Obra Hidraulikoak %98,47
- Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala %63,13
- Bide azpiegiturak %60,97
- Gobernantza eta Komunikazioa %51,14
- Ekon. Sustpn., Landa Ingur. eta Lur. Oreka %50,69
- Diputatu Nagusia %50,00
- Gizarte Politika %47,53
- Ogasuna eta Finantzak %46,42
- Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa %45,09
- Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola %44,87

Azterketaren datuek agerian jartze dute departamentu guztietan zenbatekoaren irizpideari ematen zaiola, hasieran behintzat, pisu haztatu handiagoa kontratuak esleitzeko garaian, beste irizpideen aldean.

Prezioaren irizpidearen pisu ponderatuari buruzko datuak kontratu motaren arabera banatzen ditugu, ikusten da kontratu kategoria gehienetan proposamen ekonomikoaren irizpideak eraman dituela puntu gehien. Hona portzentajeak:




- Obrak %81,79
- Hornidurak. %51,58
- Zerbitzuak %44,41
- Zerbitzuen kudeaketa %45,27
- Administratibo bereziak %30,00

Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

DIPUTATU NAGUSIA

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	50,00
11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOGIA	40,00
12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	5,00
15 HOBEKUNTZAK	5,00
GUZTIRA	100,00






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

KULTURA TURISMO GAZTERIA ETA KIROL

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	44,87
11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOGIA	37,28
12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	10,55
15 HOBEKUNTZAK	7,30
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

GOBERNANTZAKO ETA GIZART. KOMUNIKAZIOKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	51,14
3 PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO, FUNTZIONAL...	22,08
7 BERME EPEA	0,70
8 SALDU OSTEKO ZERBITZUA, ENPRESARENA	1,05
11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOGIA	2,27
12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	7,29
15 HOBEKUNTZAK	7,84
17 BESTE BATZUK	3,70
22 ZERBITZUAREN KALITATEA, EMATEKO EPEA, BERME	3,48
26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA	0,44
GUZTIRA	100,00




- 1. PROPOSAMEN EKONOMIKOA
- 11. PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOGIA
- 12. GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK
- 15. HOBEKUNTZAK
- 17. BESTE BATZUK
- 22. ZERBITZUAREN KALITATEA, EMATEKO EPEA, BERME
- 26. GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA
- 3. PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO

Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

EKON. SUSTAPENEKO, L. INGURUNEKO ETA L. OREKAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	50,69
11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOGIA	20,57
12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	3,36
17 BESTE BATZUK	1,34
18 EPEA	9,72
22 ZERBITZUAREN KALITATEA, EMATEKO EPEA, BERME	10,75
26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA	3,59
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO

